



Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Zenbaki osoak – Buruketak	Data:

OHARRA: Prozedura argi eta garbi azaldu behar da.

- 1) Zenbat metro daude **8.500 metroko altueran** hegan ari den hegazkin baten **eta itsas mailatik behera 350 metrora** dagoen itsaspeko baten artean ?



a) _____ metro daude bien artean.

- 2) Biharko, 8° C-ko tenperatura maximoak eta zeroz azpitik 3° C-ko minimoak eman dituzte. Zenbat graduko tenperatura diferentzia dago maximoaren eta minimoaren artean?



a) _____ ° -ko aldakuntza egongo da.

- 3) Tales Miletokoa greziar matematikaria **K.a. 624.** Urtean jaio zen, eta **78 urterekin hil zen.** Zer urtetan hil zen ?

a) _____ urtean hil zen.



Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Zenbaki osoak – Buruketak	Data:

4) Urpekari bat plataforma nagusian dago, itsas mailaren **gainetik 4 m**-ra, eta desplazamendu hauek egin ditu:

- **15 metro jaitsi** da, materiala uztera.
- **Beste 3 metro jaitsi** da, soldadura bat egiteko.
- **8 metro igo** da, hodi bat konpontzeko.
- Azkenik **plataformara igo da** berriro.

Zenbat metro egin ditu gorantz azken mugimendu horretan ?

a) _____ metro egin ditu gorantz azken mugimenduan.

5) Zieron eta Seneka biak izan ziren Erromako hiritarrak, gizon jantziak, hizlari onak eta politikan sartuak; eta horrek heriotza ekarri zien biei. Dena dela, aro desberdinetan bizi izan ziren:

- Zieron K.a. 106. urtean jaio zen, eta 63 urte bizi izan zen.
- Seneka Zieron hil eta 47 urtera jaio zen, eta 61 urte bizi izan zen.

Zer urtetan hil zen Seneka ?

a) Seneka _____ urtean hil zen.